

ARABAKO CAMPUSA
KUDEAKETA TXOSTENA
2017-2018

1. Azpiegiturak

1.1. Erreforma, hobetze eta egokitzeko esku hartzeen plana ikastegi ezberdinetan gauzatzea.

- ❖ Aurreko ekitaldietan egindakoari jarraituta, jarraipena eman zaie egur txirbilezko sabai akustiko modular berriak instalatzeko lanei, egokitzapen akustikoa bermatzeko. Halaber, argiteria instalazioak egokitu dira, ingurumena gehiago zaintzan duten argiak instalatuta Campuseko ikasgela eta lokaletan. Horrenbestez, PN 56/17aren bidez zenbait lokal egokitu dira Hezkuntza eta Kirol Fakultatean, Farmazia Fakultateko egoitzan eta atalean, eta Lan Harremanak eta Gizarte Langintza Fakultatean. Halaber, IKD espazio berri bat sortu da Elurreta eraikinean.
- ❖ Hezkuntza eta Kirol Fakultatean
 - 202 ikasgela eraberritu da; zehazki, sabai akustiko berriak instalatu dira, argiak eta larrialdietako argiak ordeztu dira, eta argiteria berriari lotutako instalazio elektrikoak ordeztu dira.
 - Halaber, beheko solairuko bulegoen igarobideko sabaia eraberritu da; zehazki, sabai akustiko berriak instalatu, eta argiak ordeztu eta larrialdietako argiak jarri dira.
 - Lehenengo solairuko zenbait solairutako leihoak ere ordeztu dira; zehazki, iparraldeko fatxadari begira zeudenak, isolamendu termiko/akustiko hobea lortzeko, eta eraikinaren eramankortasun termikoa hobetzeko.
- ❖ Farmazia Fakultatean
 - Beheko solairuko zenbait igarobidetako sabaiak erreformatu dira: sabai akustiko berriak instalatu dira, argiak ordeztu dira eta presentzia detektagailuak jarri dira, energia aurrezteko. Halaber, larrialdietako argiak ordeztu dira.
 - Erabat eraberritu dira beheko solairuko laborategi bat eta 1. solairuko bi ordenagailu gela; zehazki, sabai akustiko berriak instalatu, eta argiak ordeztu eta larrialdietako argiak jarri dira. Halaber, klimatizazio fankoilak ordeztu dira.

- ❖ Halaber, Elurreta eraikineko IKD areto berria eraberritu da (sabai akustikoak eta argiteria), eta altzari berriak sartu dira. Bestalde, sotoko IKD gelako altzari batzuk berritu dira.
- ❖ Hezkuntza eta Kirol Fakultatean - Kirola. Bi frankoil instalatu dira beheko solairuko Tatami ikasgelan, zeuden erradiadoreak desgaitu dira eta zirkuituak ikasgelako sabaitik birbideratu dira.
- ❖ Ekonomia eta Enpresa Fakultateko A2 ikasgelan baldosak jarri dira, aurreko zoladura apurka-apurka hondatzen ari zela eta.
- ❖ Errektoreordetzako eraikinak beheko solairuan ditu zenbait zerbitzu unibertsitario, hala nola Jendaurreko Arreta Zerbitzua, Erregistroa, Unibertsitate Orientazioko Zerbitzua, Desgaitasuna duten pertsonak Artatzeko Zerbitzua, Nazioarteko Harremanen Zerbitzua, Kirol Zerbitzua, eraikinaren atezaintza eta zenbait bulego. Hori dela eta, unibertsitate zerbitzu horien berezko funtzio eta zereginak egoki bete daitezten, eta jendarenganako arreta hobetze aldera, espazioak berrantolatu dira.
- ❖ 2018an ikastegietako lokalak birmoldatzeko proiektua idatzi da, eta aurreikuspena da irailean esleitzea lanak.
- ❖ Arabako Campuseko Errektoreordetza dagoen eraikinean irisgarritasun unibertsala bermatzeko, ate nagusian mekanismo zabukari bat instalatu da. Halaber, Campuseko eraikinetako sarrera nagusietan instalatutako ate automatikoak berrikusteko eta mantentzeko lanekin jarraitu da.
- ❖ Gure ingurumen kudeaketa hobetzeko eta energia aurrezteko, ordutegia kontrolatzeko erloju bat instalatu da Farmazia Fakultateko laborategi bateko erauzgailu maniobra batean; halaber, Letren Fakultateko eraikin atxikiko igarobideko argiteria independente bihurtu da, presentzia detektagailuen bidez piztu dadin.

1.2. INIZIA enpresa haztegiaren (Arabako Campusa) eremua handitzea.

INIZIA haztegiak Campusean ordezkaturako ezagutza esparruei lotutako enpresa ekimenak barne hartu ahal izateko, Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolan beste esparru bat prestatu da. Zehazki, 11,70 m² eta 12,45 m²-ko bi bulego itxi ditu inkubazio aldiko sustatzaileentzat, eta 29,05 m²-ko eremu bat aurre-inkubazio aldiko bi proiektu barne hartzeko.

Halaber, leku berrietan beharrezko altzariak jarri dira.

2. Garapen akademikoa eta ikerketa garapena

2.1. Komunikazio zientifikoko programa erraztea, zenbait egitura eta ekitaldiren bidez.

2017ko *Zientzia Astea* antolatzea Zientzia Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzarekin.

2.2. Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan IIPen gaitasunak eta prestakuntza hobetzera bideratutako jarduerak egin dira.

Irakasle eta ikertzaileen premia espezifiko eta zeharkakoak bete asmoa duen deialdian, hau da, "Ikerkuntzarako laguntza metodologikorako mintegi iraunkorra" izeneko programan, gaitasunak hobetzera bideratutako prestakuntza eskaini da Arabako Campusean. Tarte honetan, 7 ikastaro antolatu dira, eta 78 emakumek eta 55 gizonek hartu dute parte.

2.3. Prestakuntza eskaintzaren, programa osagarrien eta beste jarduera batzuen arteko komunikazioa erraztu.

2.3.1. Udako teknologia campusa antolatzea eta gauzatzea, DLHko 5. eta 6. mailetako, eta DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleentzat. Campusak AGORA Teknocamp du izena, eta Diputación Foral de Álava / Arabako Foru Aldundiarekin, Egibiderekkin, Ikaslan Arabarekin eta Innobasquerekin elkarlanean egin da.

Campus honen bigarren edizioan 120 umek hartu dute parte guztira (36 neska to –lehenengo edizioan baino % 10 gehiago– eta 84 mutiko). 20 pertsonako taldeak sortuta, Arabako Campuseko Ingeniaritza Eskolan antolatutako jarduerak ikusi ahal izan dituzte. 13 irakaslek eta ikertzailek gauzatu dituzte jarduerok, zientzien eta teknologiaren esparruan bokazioak pizteko.

2.3.2. Parte hartzea Vitoria-Gasteizko Udalak antolatutako Gazteria Politiken II. Jardunaldietan, maiatzaren 3an eta 4an, Europa Kongresu Jauregian.

- "Agora TeknoCamp, oraingo lankidetzaren etorkizuneko gure Araba eraikitzeko" mahai ingurua eraikitzeko. Maiatzaren 3an egin zen.
- Gazteria Eragileen Azoka. Maiatzaren 4an egin zen.

2.3.3. Babesa UPV/EHUren Udako Ikastaroak Fundazioari, Arabako lurralde historikoan egiten diren ikastaroetarako.

Aurten, UPV/EHUren udako ikastaroetan, Arabako Campusean 7 ikastaro antolatzen lagundu da:

- Comunicación de forma eficiente en la era de la información (ekainaren 19a eta 20a).
- Conexiones entre Educación para la Salud y Educación Emocional (ekainaren 19a eta 20a).
- Nacionalización y violencia política en el País Vasco contemporáneo. Novedades y miradas comparadas (uztailaren 5a eta 6a).
- Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Vitoria-Gasteiz 2018 (uztailaren 11).
- Ciudad educadora: la segregación escolar (uztailaren 11 eta 12a).
- HIGA! Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen II. topaketa (uztailaren 16tik 19a).
- Nuevas tendencias en restauración de suelos degradados III: metales, compuestos orgánicos y humedales artificiales (urriaren 9a eta 10a).

3. Esperientzia gelak

3.1. Giza Zientziak titulazioaren irakaskuntza antolatu.

Giza Zientzien titulazioa antolatu da, lau urteko iraupena duena, enborreko 18 irakasgairekin eta hautazko 24 irakasgairekin.

3.2. Orain Osagarri Ikastaroak bilakatutako Adinekoentzako Unibertsitate Ikastaroak (AUI) abiarazi.

- ❖ Helduentzako Unibertsitate Ikastaroak (HUI) antolatu dira, karreran egin ez ziren hautazko irakasgaiekin eta "Historia", "Artearen historia" eta "Geografia eta Lurraldearen Antolamendua" graduetako irakaskuntza arautuko planetako irakasgaiekin.
- ❖ Hamar ikastaro osagarri proposatu dira, ikasketa planetik kanpo irakasle adituek irakatsita.

3.3. Esperientzia Geletako ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeen arlo akademikoaz kanpoko jarduerak antolatu.

- ❖ Webgunean argitaratu dira irakaskuntza eta ikastaroen programak-
- ❖ Harrera jardunaldiak egin dira 1. ikasturteko ikasleentzat, irailaren 20an eta 21ean. Zehazki, informazioa eman zaie titulazioari buruz, UPV/EHUren webgunea erabiltzeari buruzko tailer bat egin dute eta Campusaren bibliotekatik bisita gidatua egin dute.
- ❖ Matrikulazioari begira, afixak eta liburuxkak zabaldu dira.
- ❖ *El Correo* eta *El Diario de Noticias de Álava* egunkarietan iragarki bana argitaratu da matrikulazio epeen inguruan.
- ❖ Ikasturtearen inaugurazio ekitaldia antolatu da, 2017ko irailaren 25ean, 18:00etan, Letren Fakultateko Areto Nagusian. UPV/EHUko Kimika Inorganikoa Saileko zuzendari Pascual Román Polo zuzendariak eman zuen inaugurazio lezioa: "Mitología y arte en la tabla periódica de los elementos químicos".
- ❖ Esperientzia Gelen VI. Jardunaldiak antolatu dira, urtarrilaren 29an eta 30ean, Letren Fakultateko Areto Nagusian. Aurten, honako hau izan da gai monografikoa: "Etorkizunari begira: garapen jasangarria / Mirando al futuro: desarrollo sostenible".

- ❖ Oinarrizko informatika tailer bat antolatu da, funtsean, 1. ikasturteko ikasleentzat, 1. lauhilekoan. Horren helburua da IKTak erabiltzeko beldurrari aurre egitea eta "arrakala digitala" gainditzea; izan ere, oztopoa da egungo gizartean parte hartzeko, eta eragotzi egiten du gure unibertsitatean bertan gero eta gehiago erabiltzen diren bitartekoetara sartzea.
- ❖ Bestelako ekintzak: irakasgaien programak osatzeko eta testuingurua emateko, zenbait jarduera egin dira, hala nola hitzaldiak, bisitak museoetara, kultur ibilbideak, partaidetza ABAOren opera entsegu orokorretan, irteerak kontzertuetara, jardunaldiak eta abar. Ekintza horiek guztiek hobetu egin dute Esperientzia Geletan eskainitako prestakuntza, eta motibazio erantsia eman diete ikasleei.
- ❖ Ikasturtea ixteko ekitaldia antolatu da, 2018ko maiatzaren 31n, Letren Fakultateko Areto Nagusian. Ekitaldi horretan, zuzendariak ikasturteko memoria azaldu zuen, bekak ezarri ziren eta diplomak banatu zitzaizkien hamalaugarren promozioiko ikasleei. Halaber, Sortilegio sound singers abesbatzak kontzertua eman zuen.

3.4. Ikasgeletako ikasleen eta ikasle ohien kultur elkarteari (ACAEXA-AEIKE) irakaskuntza jarduerak eta hitzaldiak antolatzen lagundu.

- ❖ Pedro Luis Uriarte jaunaren hitzaldiaren ("El concierto económico: una visión personal") antolakuntza, lankidetzan. Martxoaren 20an egin zen, Letren Fakultateko Areto Nagusian.
- ❖ Antolakuntza: Erdi Aroko Jardunaldiak / Jornadas Medievales. Izena: Liburuak eta musika Erdi Aroan / Libros y música en la Edad Media. M.C. Vivancos doktoreak hitzaldia eman zuen: "El lujo hecho libro: cómo se ilumina un manuscrito en la Edad Media" (apirilaren 12a, Letren Fakultateko Areto Nagusia). Halaber, Ismael Fernández de la Cuestaren kantu gregorianoaren abesbatzaren kontzertua egin zen (apirilaren 18a, Letren Fakultateko Areto Nagusia).
- ❖ Antolakuntza: Vaticanoko misterioak / Los misterios del Vaticano. Jarduera horri lotuta, Saturnino Ruiz de Loizagak hitzaldia eman zuen: "Los archivos del Vaticano (maiatzaren 22a, Letren Fakultateko Areto Nagusia). Halaber, Jesús M^a González de Zarate doktoreak beste hitzaldi bat eman zuen: "Petros eni / Pedro está aquí" (maiatzaren 24a, Letren Fakultateko Areto Nagusia).

- ❖ Esperientzia Geletako Antzerki tailerreko ea Testutik interpretaziora ikastaro osagarrietako ikasleen bi irakurketa dramatizatu egin ziren, ACAEXA antzerki taldearen eta Esperientzia Gelen lankidetzarekin.
- ❖ ACAEXA antzerki taldeak eta Esperientzia Gelek irakurketa dramatizatu bat eta antzerki lan bat egitea (N. Gogol-en *Inspektorea*. Maiatzaren 30a. Mataukoko Jesús Ibáñez antzokia, Vitoria-Gasteiz).

3.5. Argitaratzea eta hedatzea *La voz de la experiencia / Esperientziaren ahotsa* seihilabetekariaren 27. eta 28. zenbakiak. Esperientzia Geletako ikasleek egin dituzte.

Aipatutako seihilabetekariaren bi zenbaki argitaratu eta hedatu dira.

3.6. Lankidetzaren UPV/EHUko sail eta ikastegiekin, eta beste erakunde eta elkarte batzuekin, unibertsitateko gainerako ikasleentzat eta/edo hiritarrentzat irekita dauden jarduerak antolatze eta eskaintze.

Arte Erromanikoaren II. Jardunaldiak ("Pintura erromanikoa: ikonografia, funtzioa eta teknika"). Bost konferentzia egin dira bigarren lauhilekoan, UPV/EHUko Artearen eta Musikaren Historia Sailarekin, Arte Erromanikoaren Lagunen Elkartearekin eta "Erdi Aroko Araba" proiektuarekin lankidetzan.

3.7. Elkarrekiko informazio harremanak sortzea Arabako Aldundiaren Hirugarren Adinekoen Ikasgeletako eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Helduen Zentro Soziokulturaletako jardueraren eskaintzaren inguruan.

Esperientzia Geletako jardueren berri eman da Vitoria-Gasteizko helduen zentro soziokulturaletan, Vital Fundazioan (Mejora) eta Arabako Foru Aldundiaren Hirugarren Adinekoen Ikasgeletan. Halaber, Esperientzia Gelen ikasleen artean zabaldu dira erakunde horiek antolatutako jarduerak.

4. Hizkuntza garapena

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzarekin batera:

4.1. Euskararen III. Plan Zuzendariaren (2018-2022) oinarrien diseinuari heltzea.

Aztertu egin da Euskararen II. Plan Zuzendariaren betetze maila, eta III. Plan Zuzendari berriaren diseinuari ekin zaio. Halaber, galdeketak hasi dira unibertsitateko kideen artean. Jarduera horiek Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren Errektoreordetzarekin lankidetzan egin dira, bai eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Euskara Zuzendaritzekin ere.

4.2. Euskararen erabilera unibertsitate eremuan sustatu.

- ❖ Arabako Campusean "EHUskARABANda" egin da; zehazki, 2017/2018 ikasturte osoan zehar zenbait jarduera egin dira, hala nola "#kafetapintxo" (#Kafetapintxo2: sarean zientzia dastatzen). Horren helburua da ikertzaile eta dibulgatzaile euskaldunen sare bat mantentzea Campusean: egina dute lehenengo talde lana. Halaber, euskarazko film laburren bideomaratoi lehiaketa bat antolatu zen: Euskararen Egunean egin zen, Cortada jaialdiaren barruan (Euskal Zinemaren eguna, euskarazko film laburren GUREAK lehiaketarekin eta euskal zinemagileen topaketarekin). Bestalde, umorezko bakarrizketa saio bat antolatu zen. Oihaneder Euskararen Etxeko Hitz Adina Mintzo zikloan parte hartu da, honako hitzaldi honekin: "Zertaz ari gara hizkuntza normalizazioaz ari garenean?" Urtzi Urrutikoetxea idazle eta kazetaria aritu zen hizlari. Bestalde, Vitoria-Gasteizko Udalarekin eta Elhuyar-ekin lankidetzan Ekolingua solas-jokoaren saio bat egin zen, Campuseko idazleek gidatuta.
- ❖ EHUskalaria deialdia egin eta kudeatu da, euskararen erabilera sustatzeko unibertsitateko kideen artean (ikasleak, IIPak eta AZPkoak barne).
- ❖ Lazarraga Kultur Elkartearekin lankidetzan egin da (Vitoria-Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxea kudeatzen du), euskararen erabilera sustatzeko hala Campusean nola hirian.
- ❖ Gure Campusean euskararen erabileraren analisi prozesu bat abiatu da, Euskal Soziolinguistika Klusterrarekin lankidetzan. Hasteko, kale neurketa egin da, Campuseko hizketaldietan gaztelania eta/edo euskara erabiltzen den erregistratuta.

- ❖ Lankidetzan dago Euskaltzaleon Topaguneko Euskaraldiarekin, jardura hori sustatzeko eta Campusean arrakasta bermatzeko. Horretarako, Campusean eman da programaren berri, batzordeak antolatu dira Campuseko ikastegietan eta Campuseko batzorde orokor bat eratu da, ekimenaren garapenari begira. Halaber, jarduerak antolatu dira, unibertsitateko kideek Euskaraldian parte har dezaten.
- ❖ Hausnarketa jardunaldiak antolatu dira euskararen erabileraren inguruan. Nabarmentzekoa da Eusle metodologiari buruzko bat eta "Zergatik ez?" izeneko beste bat.

4.3. Euskara teknikoaren sustatzeko jarduerak bultzatu.

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren Errektoreordetzarekin lankidetzan, euskaraz argitaratutako unibertsitate aldizkarien (*Tantak, Ekaia, Gogoia, ASJU*) argitalpena babestu da, bai eta LIMES eta LEGEAK bezalako bildumen sorkuntza ere. Halaber, testuak banatu dira Oihanederren.

4.4. II eta AZP prestatzeko jarduerak.

Arabako Campuseko Errektoreordetzak, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren Errektoreordetzarekin lankidetzan, honako hobekuntza ikastaro honen antolakuntzan hartu du parte: "Euskararen Arloko Errektoreordetzaren euskarazko hobekuntza ikastaroak".

4.5. Euskarazko irakaskuntzarako materiala prestatu, egokitu eta zabaltzeko laguntza eman.

- ❖ Testu liburuak euskaratzeko jarduerak lagundu dira, bai eta liburuak eta bitarteko materialak euskaraz sortzekoak ere (Testugintza eta Ikasmaterialgintza deialdia).
- ❖ Testuak unibertsitateko ikastegietan banatzea.
- ❖ Testuak Oihanederren banatzea.

4.6. Atzerriko hizkuntzak ikasteko laguntza Campuseko unibertsitateko kideen artean: hizkuntza laborategiaren kudeaketa.

- ❖ Honako ikastaro hauek eskaini dira ingelesa lantzeko: 1) "Idazketa akademikoko saioak". Guztira 16 ordu eman dira (8 orduko ikastaroak, lauhileko bakoitzean errepikatuta), 11 parte hartzaileekin; 2) "Elkarrizketa saioak". Guztira 48 ordu eman dira (12 orduko ikastaroak, bi talde lauhileko bakoitzean), 22 parte hartzaileekin; 3) "Fonologia saioak: ELF (English as Lingua Franca)". Guztira 16 ordu eman dira (8 orduko ikastaroak, lauhileko bakoitzean errepikatuta), 8 parte hartzaileekin; 5) "TED ACADEMY". Guztira 20 talde eman dira (bi talde bigarren lauhilekoan), eta 25 parte hartzaile onartu ziren. Aurreko ikasturteetan bezala, 2017/2018 edizio honetan ere ikastaro trinko bat eskaini da, TOPTULTE azterketa beren-beregi prestatzeko; aitzitik, bertan behera utzi zen, matrikula gutxi egin zelako.
- ❖ Honako jarduera soziokultural hauek eskaini dira: Language Lab Blog - Gasteiz (zenbait gairi buruzko 8 sarrera eta 911 bisita) eta English PintxoPote (2 orduko 10 saio egin dira, 4 lauhileko bakoitzean). Guztira 6 pertsona bertaratu dira batez beste, nahiz eta 163 pertsona inskribatu diren bilerei buruzko informazioa jasotzeko).
- ❖ Unibertsitateko kide guztiei Hizkuntzak Autoikasteko Multimedia Laborategia eskaintzen jarraitu da (ingelesa, frantsesa eta alemana ikasteko), hizkuntza modernoak interaktiboki ikasteko programekin eta tutore baten laguntza pedagogiko-linguistikoarekin. Ikasturte honetan 12 pertsona bertaratu dira lehenengo lauhilekoan ingelesera, eta 9 bigarrean: 6 ingelesera eta 3 frantsesera.

5. Ekintzailletza eta laneratzea

Ikasleen eta Enplegarritasunaren Errektoreordetzarekin lankidetzan:

5.1. INIZIA ArabaCampus programa garatzea Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroarekin (Bic Araba) lankidetzan, Arabako Campusean ekintzailletza eta oinarri teknologikoko INIZIA enpresa haztegia bultzatzeko.

Ekintzailletzarako kultura zabaltzeko jardunaren barruan, honako hauek dira Arabako Campuseko INIZIA programa garatzeko burutu diren jarduerak:

- ❖ Uniekintzaile Inizia ArabaCampus VI. Sariaren deialdia, unibertsitateko kideen kolektiboari bideratuta, non hiru proiektu saritu baitziren.
- ❖ Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza UEan eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Vitoria-Gasteizko atala) ikastegi horietako ikasleekin lankidetzan Ekiten ikasten proiektu pilotuaren garapena. 4 ikasgela ezberdinetako 176 ikaslek hartu dute parte.
- ❖ Prestakuntza tailer eta jardunaldiak ekintzailletzari lotutako gaitasunen inguruan. 110 pertsona aritu dira (56 emakume eta 54 gizon), denak ere Arabako Campuseko unibertsitateko kideen komunitatekoak.
- ❖ SEC2U (Startup Europe Comes 2 Universities) jardunaldia. Ekimen honen helburua da erakustea zer-nolako konpromisoa duten Europako unibertsitateek berrikuntzaren eta ekintzailletzaren kulturarekin. 83 pertsona inguru bertaratu ziren (41 emakume eta 42 gizon) eta 200ek baino gehiagok jarraitu zuten ekitaldia Periscopen bidez.
- ❖ Ekintza bateratuak diseinatzea eta exekutatzeko, ekintzaileen arteko harremanak sustatzeko; halaber, tokiko haztegien sare bat sortzea (Udala, Ajebask eta Bic Araba).
- ❖ "Araba ekintzaile" sarearen esparruan (Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteizko Udala eta Bic Araba dira gidari), unibertsitate pabiloian Ekin Breakfast bat egin zen: "Millennialak ere ekintzaile dira". 25 bat pertsona aritu ziren.
- ❖ Ekintzaileen prestakuntzarako eta tutorizaziorako AGUDEZIA ikastaroaren beste edizio bat antolatu da, 2017ko martxotik ekainera bitartean. Zehazki, Campuseko zenbait ikastegitako unibertsitateko 13 kidek 10 enpresa proiektu landu dituzte. Tailerlean sortutako enpresa proiektuak jendaurrean aurkeztu dira, eta aurkezpenera Bic Arabako kideak bertaratu dira.

- ❖ Arabako campuseko ekintzaileentzako laguntza eta aholkularitza, AGUDEZIA programatik eratorritako proiektuak babestu eta tutoretza eskainiz.
- ❖ Laguntza eta aholkularitza Arabako Campuseko enpresa haztegiako ekintzaileei.
- ❖ Lankidetza "Araba ekinean"-en XVII. edizioan, ekimen ekintzaileei eman beharreko sarien ebaluazio batzordeko kide gisa eta ekimena bera lagunduz.
- ❖ Bic Araba (CEIA) erakundearekin lankidetza. Urteko Lankidetza Hitzarmen Espezifikoa sinatu da, ekintzaileak sustatu, aholku eman eta laguntzeko programak egin daitezzen, eta egoitza teknologikoa Arabako Campusean duten enpresak sortzeko (INIZIA ArabaCampus programa).
- ❖ Ikasturte honetan beste enpresa bat gehitu da INIZIA enpresa haztegiara: ABAGUNE. Zehazki, 1. inkubazio bulegoan dago. Ebaluazio Batzordeak haztegian instalatutako gainerako enpresen inguruan egindako ebaluazioa dela eta, guztiek izan dute jardueraren aldeko txostena.
- ❖ Eusko Jaurlaritzaren Gazte Ekintzailatza programa antolatzeko eta kudeatzeko lanetan esku hartu da. Horri loturik, 45 beka eman dira azken hiru ikasturteetan (2014/2015, 2015/2016 eta 2016/2017) UPV/EHU titulazio ofizial bat lortu duten edo 2017/2018 ikasturtean graduako azken ikasturtean zein masterrean matrikulatuta dauden pertsonen garatutako enpresa ideia edo proiektuak laguntzeko.

5.2. Araban ekintzailatza bultzatzeko egiten diren ekimenetan parte hartu.

Lankidetza Vitoria-Gasteizko Udalarekin, hitzarmen bat sinatuta, bai eta ekintzailatza diharduten gainerako eragileekin eta egoitza teknologikoa Vitoria-Gasteizen duten haztegiekin ere (Ajobask, Bic Araba eta Udala).

5.3. Laneratzearekin eta enplegu zentroekin lotutako jarduerak hedatu

Lankidetza egin da zenbait erakunde eta instituziorekin, pertsona gazteak, langabezian daudenak eta alde zuzenetik esperientzia gutxi edo esperientziarik ez dutenak kontratatuzko.

5.4. Enplegurako orientazio gunea (Elurreta) koordinatu.

Enpleguari buruzko orientazio gunearen koordinazioa. Elurreta eraikinean dago, eta bere helburuetako bat da laneratzeko orientazioa ematea eta Lanbide zerbitzuan izena eman dezaketen tituludunen enplegarritasuna hobetzea.

5.5. Ikasle graduatuen eta enpresen arteko lan bitartekaritza sustatu.

Arabako Campusean zenbait ekintza egin dira Laneratzearen inguruan; besteak beste, "Hezkuntzatik lan mundurako trantsizioa" programan hartu da parte (Eusko Jaurjaritza), baita Santander-CRUE-CEPYME beka programan ere. Bi programak dira ikasleek praktikak egin ditzaten enpresa eta erakundeetan.

5.6. Ikastegiei laguntza eta aholku eman enpresetako praktiken gestiorako.

Campuseko ikastegiei laguntza eman zaie borondatezko praktikak kudeatzeko eta GAUR-PRAKTIGES plataforma erabiltzeko. Hain zuzen ere, laguntza horren bidez lortu da Campusean borondatezko praktikak eskaintzen dituzten ikastegi guztiek aipatutako plataforma erabiltzea horretarako. Campusean 2017/2018 ikasturtean 687 praktika egin dira.

5.7. Enplegu-Gune 2017 antolatzea (Vitoria-Gasteizko Enpleguaren Foroa), Vitoria-Gasteizko Udalaren Enplegua eta Garapen Ekonomiko Iraunkorra Sailarekin lankidetzan.

2017ko urriaren 26an eta 27an Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntzarekin antolatu zen Vitoria-Gasteizko Enplegu Foroa, Vitoria-Gasteizko Biltzar eta Erakusketa Aretoan. Guztira enplegarritasuna sustatzeko 18 jarduera egin dira, eta Arabako Lurralde Historikoko 22 enpresa eta 12 erakunde bertaratu dira, bai eta 700 bat pertsona ere.

5.8. Campuseko ikastegietan laneratzeari buruzko ikastaroak antolatzea.

Laneratzea errazteko ikastaroak eman dira, zehazki, Farmazia Fakultateko ikasleentzat, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Arabako atalean eta Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko Gizarte Langintza atalean. Guztira 210 bat ikasle bertaratu dira.

5.9. "Erasmus+ IkaslePraktikak UPV/EHU" mugikortasun programa antolatzea eta kudeatzea. Beka programa bat da, UPV/EHUko graduako, masterretako eta doktoregoko ikasleek praktikak atzerrian egin ditzaten.

- ❖ Parte hartu da Santander beken gestioan, praktikak ETEetan egiteko. Deialdi honetan, guztira emandako 58 beketatik 13 esleitu zitzaizkion Arabako Campusari.

- ❖ “Hezkuntzatik lan mundurako trantsizioa” programa (Eusko Jaurlaritzak) antolatzen eta kudeatzeko lanetan parte hartu da, ikasleek praktikak egin ditzaten enpresa eta erakundeetan. Deialdi honetan, guztira emandako 450 beketatik 63 esleitu zitzaizkion Arabako Campusari.
- ❖ 2017/2019 ikasturtean Arabako Campusak, gainerako bi campusekin, ikasle egresatuen Erasmus+ EPEZ XI mugikortasun programan parte hartu du; zehazki, 35 graduatuk Europako enpresetan egin dituzte praktikak, eta horietako 9 Arabako Campusekoak izan dira.
- ❖ 2015/2016 ikasturtean Arabako Campusak, gainerako bi campusekin, ikasleen Erasmus+ IkaslePraktikak mugikortasun programan parte hartu du; zehazki, UPV/EHUko graduako, masterretako eta doktoregoko 46 ikaslek (21 gizon eta 25 emakume) Europako erakunde eta enpresetan egin dituzte praktikak.
- ❖ Halaber, Enplegu Foroaren barnean saio espezifikoa bat egin zen kontratazioari laguntzeko baliabideei buruz. Informazioa eman zen UPV/EHUK ikasleak laneratzeko eta enplegarritasunaren inguruan dituen baliabideen inguruan, baita egresatuei buruz ere (Global Trainin beka, Erasmus+ EPEZ beka eta IkaslePraktikak, Santander-CRUE-CEPYME beka, “Hezkuntzatik lan mundurako trantsizioa” programa, enpresetako praktikak, etab.). Halaber, Lanbidek eta Vitoria-Gasteizko Udalak enpleguaren, orientazioaren eta prestakuntzaren inguruan dituzten baliabideen inguruko informazioa eman zen.

6. Kalitate, prebentzio eta ingurumen programak

6.1. Suteak atzemateko sistemak eta alarmak hobetzea.

Zenbait ikastegitan sua itzaltzeko ekipoak ordeztu dira, iraungitze data dela eta. Errektoreordetzako eta Elurretako ate automatikoetan susteen zentralarekiko konexio moduluak instalatu dira, sukaldeetako gas detektagailuak suteen zentralarekin konektatu dira Letren Fakultatean eta Hezkuntza eta Kirol Fakultatean. Punpen seinaleak hartzeko moduluak ezarri dira Lascaaray ikerguneko kudeaketa zentralizatuko sistemarako, suteak atzemateko sistema areagotu da Hezkuntza eta Kirol Fakultatean eta elektroimanak instalatu dira Letren Fakultateko klaustroan eta Elurreta eraikineko zenbait atetan.

6.2. Larrialdietako planak eguneratu eta simulakroak antolatu, lanerako zehaztutako egutegiari jarraituz.

- ❖ Eguneratu egin dira Farmazia Fakultateko, Letren Fakultateko, Errektoreordetzako, Pabilioiko eta Micaela Portilla ikerguneko autobabes planak (Eusko Jaurlaritzak homologatu ditu).
- ❖ Eguneratu egin dira Campuseko zenbait ikastegitako larrialdi taldeen izendapenak.
- ❖ Ebakuazio simulazioei dagokienez, urteko lan egutegia Campuseko Segurtasun eta Osasun Batzordean adostu ondoren, 2018 ekitaldiko lehenengo seihilekoari zegozkionak egin dira (2017/2018 ikasturtea).

6.3. Arauzko eta maiztasun jakin bateko ikuskatzeak egitea, eta neurri zuzentzaileak ezartzea, hala badagokio.

- ❖ Lascaaray ikerguneko instalazio geotermikoari zegokion ikuskaritza egin da.
- ❖ Maiztasun jakin bateko ikuskatze lanak egin dira Campuseko 14 igogailutan.
- ❖ 2018ko lehenengo seihilekoan Baimendutako Kontrol Organismoak (BKO) ikuskatu du Campuseko erakinen instalazio termikoen eraginkortasun energetikoa.

7. Unibertsitate Hedakuntza

7.1. Kultur hedakuntzarako jarduerak.

7.1.1. EHUkultura Araba programa zehaztu eta garatu, erakusketak, antzerkia eta musika emanaldiak antolatzeko.

Arabako campuseko errektoreordetzak kultur hedakuntzarako jarduera multzoa antolatu du "EHUKultura Araba" programaren barruan bildu direnak. Programan 12 kultur jarduera bildu dira, hainbat arte adierazpeni loturik; besteak beste, 7 musika ekitaldi, 3 erakusketa eta 3 liburu aurkezpen, egileekin (denak ere UPV/EHUko irakasleak) mahai inguruak eginda.

7.1.2. Jatorrizko bertsioko film emanaldiak antolatu beste erakunde batzuekin batera.

3 proiektio eskaini dira jatorrizko bertsioko zinema ziklo azpigitulatuan, hiru arlo tematikotan banatuta. Jarduera hauen antolatzeko, kontutan hartu dira bai arte joera berriak eta bertatik bira eginez ari diren nazioarteko eskaintza, bai tokiko taldeak eta proposamen originalenak, euskaraz egindako jarduerak ere sustatuz.

7.1.3. Kultur eta hedakuntzarako jarduerak tokiko prentsan eta hedabide espezializatuetan areago zabaldu, bai eta Interneten, prentsaurrekoen eta abarren bidez ere.

Arabako Campuseko kultur jardueren berri jaso da tokiko prentsan eta prentsa espezializatuan. Halaber, egindako jardueren berri eman da sare sozialen (Facebook eta Twitter) bidez.

7.1.4. Hiriko kultur eragileekin akordioak bultzatzea

Unibertsitate hedakuntzarako jardueren artean, Vitoria/Gasteizko kultur eragile ezberdinekiko lankidetzak sustatu da, honen ondorioz, akordio ezberdinetan gauzatu dena, besteak beste, Artium museoarekin ikasleek praktika egin dezaten; Mendizabala institutuarekin, campuseko kultur jarduerak grabatu eta editatzeko; eta Vitoria/Gasteizko udalaren menpeko Film Office-rekin, Cortada jaialdiarekin lankidetzan jarduteko. Bestalde, lankidetzak hitzarmena sinatu da Vital Fundazioarekin, CORTADA lehiaketa egiteko. Jaialdi horrek Espainiako Zinema Akademiaren aitortpena du Goya sarietarako jaialdi kalifikatzaile gisa. Halaber, EGEDA kudeaketa erakundearen

aitorpena du, Forqué sarietarako jaialdi kalifikatzaile gisa. Azkenik, Asociación Española del Cortometraje (AIC) elkarteak kalitate ziurtagiria eman dio lehiaketari.

7.1.5. Campusean kultur jarduerak (biltzarrak, mintegiak, tailerrak, ikastaroak eta jardunaldiak) bultzatu, laguntzak emateko deialdien bidez.

Zenbait kultur gela eta tailer antolatu dira. Halaber, zenbait laguntza eman dira biltzarrak, mintegiak, ikastaroak eta kultur jarduerak campusean antolatzeko.

7.2. Unibertsitatearen irudia zabaltzeko jarduerak.

7.2.1. Iritzi artikuluen lehiaketarako deialdia.

37 artikulua aurkeztu ziren. Aurreko ikasturtearekin alderatuta, partaidetza nabarmen areagotu zen: 10 bat izatetik zenbateko hori laukoiztera ia.

7.2.2. Fantasiako ipuin laburren lehiaketarako deialdia.

Lehiaketa esparru nazionalera eta unibertsitariora mugatzea erabaki zen, eta 3 ipuin aurkeztu ziren. Lehiaketan ez zen saririk eman.

7.2.3. Gasteizko CORTADA film laburren XXI. lehiaketarako deialdia.

1.590 film labur aurkeztu ziren, eta horietatik 66 hautatu ziren. Erakunde batzuek babesak eman zuten berriz ere, hala nola Vitoria-Gasteizko Udalak eta Vital Fundazioak.

7.3. Kirol ekintzak

7.3.1. Partaidetza hainbat txapelketetan

- ❖ Guztira unibertsitateko 1.851 kidek hartu zuten parte txapelketetan (1.367 gizon eta 484 emakume).
- ❖ UPV/EHUren txapelketa. Arabako Campusak irabazi du modalitate hauetan: mahaiko tenisa (modalitate maskulinoak), aretoko futbola (maskulinoa eta femeninoa), futbol 7 (maskulinoa) eta esku pilota (banakakoa).
- ❖ Euskadiko txapelketa. Arabako Campusak irabazi du tenis modalitatean (bikoteka, femeninoa).

- ❖ “Enpresen lasterketa”. UPV/EHUK 25 pertsonaren (17 gizon eta 8 emakume) bidez hartu zuen parte, eta 4. geratu zen erakundekako izen emateen zenbakiaren arabera.

7.3.2. Lauhileko ikastaroak eta bestelako kirol jarduerak.

- ❖ Jarduera fisiko gidatuaren sustatze lan orokorrean (txapelketatik kanpoko), ikastaro eskaintza zabala egin da: unibertsitateko 387 kidek hartu dute parte (305 emakume eta 82 gizon).
- ❖ Vitoria-Gasteizko Udalean 325 baimen unibertsitario eman ditu. Hain zuzen, horiek bidea ematen dute ikasleak udal instalazioetan sartzeko.
- ❖ Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena, unibertsitateko kideen artean kirolaren irakaskuntza eta zabalkuntza sustatzeko.
- ❖ Kirolerantz udal kanpaina sustatu da, naturan egiteko jarduera programaren barnean. Guztira 26 parte hartzaile izan dira (8 emakume eta 18 gizon).
- ❖ Lankidetzaren hitzarmena Rugby Gaztedi klubarekin, Rugby kirol eskola garatzeko.
- ❖ Halaber, lankidetzaren akordioak sinatu dira 24 gimnasio edo kirolgune pribaturekin, eta 339 ikasle jo dute horietara (122 emakume eta 217 gizon).
- ❖ Lankidetzaren egin da zenbait erakunderekin, hala nola Estadio Fundazioa, Arabako Kirol Federazioen Elkarte (AKFE)... Helburua izan da mahai inguruak eta hitzaldiak eskaintzea honako gai hauen inguruan: jarduera fisikoa, osasuna, kirola eta desgaitasunak, kirolaren psikologia... Ikasturte honetan 15 hitzaldi antolatu dira guztira.
- ❖ Lankidetzaren egin da Estadio fundazioarekin, "Zine forum" ziklo bat eskaintzeko, 4 filmekin, horien eta kirolaren inguruan eztabaidatze aldera.
- ❖ 27 ziurtagiri eman zaizkie Arabako Campuseko goi mailako eta errendimendu handiko unibertsitateko kirolarien tutorizazio plan egin nahi izan duten ikasleentzat.
- ❖ 526 ikasle egin dute graduko ikasketetan kredituak aitortzeko eta transferitzeko eskaera.

CAMPUS DE ÁLAVA
INFORME DE GESTIÓN
2017-2018

1. Infraestructuras

1.1. Desarrollar el plan de intervención de reformas, mejoras y adecuaciones en diferentes centros.

- ❖ Siguiendo la tónica de ejercicios anteriores, se ha continuado con la instalación de nuevos techos acústicos modulares de viruta de madera para garantizar el acondicionamiento acústico y se han adecuado las instalaciones de iluminación mediante la sustitución de luminarias por otras más respetuosas con el medio ambiente en aulas y locales del Campus. Así pues, mediante el PN 56/17 se han adecuado diversos locales de la Facultad de Educación y Deporte- sede y sección de la Facultad de Farmacia, de la Facultad de Relaciones Laborales y Trabajo Social y se ha conformado un nuevo espacio IKD en el edificio Las Nieves.
- ❖ En la Facultad de Educación y Deporte - Educación
 - Se ha reformado el aula 202 instalando nuevos techos acústicos, se han sustituido las luminarias así como las luminarias de emergencia y se han sustituido las instalaciones eléctricas asociadas a la nueva iluminación.
 - Asimismo, se ha reformado el techo del pasillo de despachos en planta baja, instalando nuevos techos acústicos así como sustituyendo luminarias y luminarias de emergencia.
 - También se ha procedido a la sustitución de las ventanas existentes en varios locales de la planta primera orientadas a su fachada norte con el fin de conseguir un mayor aislamiento térmico/acústico y mejorar la transmisividad térmica del edificio.
- ❖ En la Facultad de Farmacia
 - Se han reformado los techos de varios pasillos en planta baja, instalando nuevos techos acústicos así como sustituyendo luminarias y colocando detectores de presencia de cara al ahorro energético. También se han sustituido las luminarias de emergencia.

- Se ha reformado totalmente un laboratorio en planta baja y dos salas de ordenadores en planta 1ª instalando nuevos techos acústicos así como sustituyendo luminarias y luminarias de emergencia. Asimismo se han sustituido los fancoils de climatización.
- ❖ Asimismo, se ha reformado (techos acústicos y luminarias) y dotado de nuevo mobiliario la nueva sala IKD del edificio Las Nieves y se ha renovado parte del mobiliario de la sala IKD del sótano.
- ❖ En la Facultad de Educación y Deporte - Deporte se han instalado dos fancoils en la sala Tatami de planta baja, se han anulado los radiadores existentes y se han reconducido los circuitos por el techo de la sala.
- ❖ Se ha embaldosado el aula A2 de la Facultad de Economía y Empresa debido al progresivo deterioro del pavimento anterior.
- ❖ El edificio del Vicerrectorado tiene ubicados en su planta baja diversos servicios universitarios, tales como el Servicio de Atención al Público, el Registro, el Servicio de Orientación Universitaria, el Servicio de Atención a Personas con Discapacidades, la Oficina de Relaciones Internacionales, el Servicio de Deportes, la conserjería del edificio y diversos despachos. Por ello, en orden a garantizar tanto el buen desarrollo de las funciones y tareas inherentes a esos servicios universitarios, así como a mejorar la atención al público, se ha procedido a la reordenación de espacios.
- ❖ Se ha redactado el proyecto para la remodelación de locales de los centros en 2018 y se prevé que en septiembre se adjudiquen las obras.
- ❖ Con el fin de garantizar la accesibilidad universal al edificio del Vicerrectorado del Campus de Álava, se ha instalado un mecanismo batiente en su puerta principal. Asimismo, se ha continuado con los trabajos de revisión y mantenimiento de las puertas automáticas instaladas en los accesos principales de los edificios del Campus.
